

# Herri Aldizkaria ZINTZO-MINTZO ELKARTEA

ZINTZO-MINTZO  
ELKARTEA

## HEMEN GARA!




### Gaiak

*Zumarraga eta Tagbilaran: Anaikidetze ituna*

*Zumarragako Ezpatadantza Irrintzi taldearen eskutik*

*Otamotz: Zer gera gu, nor gera gu?*

## A zer potoa!




*Santa Isabel jaiak badatoz  
pozez momentu galantak  
plazan guztiak bildutakoan  
irrintzi eta zaratak,  
Uztailan bian ahal dan bizkorren  
utzi ohe eta mantak  
guztiok goiztar Antiguara  
erromeriko plantak  
poz eta penak nahasten dira  
aireratzean ezpatak.*

*Urte guztian herritar denek  
betetzen dutela lana  
festa egunak beharrezkoak  
hortako denok afana  
buruak aisa askatu eta  
ondo pasatzeko plana  
baina guztia bukatzen da ta  
askotan degu esana  
Santa Isabelek emango digu  
bizitzeko behar dana.*

*Gorka Azkarate*

## Zumarraga eta Tagbilaran: Anaikidetze Ituna

Migel Lopez de Legazpik, Filipinetara joan zenean, orain Tagbilaran hiria dagoen inguruan lur hartu zuen. Bere itsasuntzi eta soldaduekin han azaldu zenean, jakina, bertakoek aurre egin zioten, eta pakea izango bazen, bertako bizilagunen buruzagia zen Sikatuna-rekin «odolezko ituna» egin zuen. Hori da historiak dioena.



Duela bi urte, Zumarragako herriko ordezkari bat izan zen bertara joanda, eta Tagbilarango hiriarekin «Anaikidetze Ituna» sinatu zuten. Oraingoan berriz hangoak datoz, Migel Lopez de Legazpiren herria ezagutu eta anaikidetze ituna berritza.

Zumarragako herriaren asmoa ez da, uztailaren 3ko ekitaldiarekin, Legazpik eta Sikatunak bere garaian egindako ituna gogoratzea bakarrik, bi herrien arteko ELKARTASUNAREN oinarria izango den itunea berritzea baizik.

Gureak baino premia larriagoak dituzte dudarik gabe, eta esan dugun elkartasun horren adierazle, Udalak Hirugarrem Munduko Herrialdeentzat ematen duen Aurrekontuaren %0,7a aurtun Tagbilaran-era bidaliko da.

Itunea egiteko ekitaldia berriz, uztailaren 3an, arratsaldeko 6etan izango da, Legazpi etxean. Agintariek bakarrik ez, herritarron arteko elkartasuna ere gauza haundia litzateke.

### «IRRATI AFIZIOA»

LUZ (Legazpi, Urretxu eta Zumarragako) irratifizionatu elkarte kulturalak anitz ekintzatan parte hartu du sortu zenetik, batez ere antolaketa lanetan laguntzen, hala nola, Euskadiko Itzulian, Duatlon nahiz Mountain Bike txapelketetan.

Bestalde, duela hilabete batzu, talde honen bitartekotzaz familia bateko senitartekoen elkarrizketa lortu ahal izan zen, irradi bidez Legazpi eta Bosnia bat eginik. Honelako giza laguntzak benetan pozgarri dira laurogei lagun inguruko talde honentzat.

Zumarragako jaietarako 24 orduko irradi emanaldi bat antolatuko dute herritarrengan zaletasun pittin bat sortarazteko asmoz. Emanaldiak irauten duen 24 orduetan zehar kanala irekita egongo da, eta, mendian hor nonbait kokatuta egongo den basearen bidez, bertatik nahiz beste herriren batetik bidalitako ahotsa Zumarraga eta Urretxura hedatuko delarik.

Bukatzeko esan behar dugu irratizaletasunari buruzko erakusketa bat antolatu eta txozna bat jartzeko asmoa dutela. Irratia besterik behar ez den zaletasun honetan interesa baduzu, gertura zaitez!

## Zumarragako ezpatadantzari buruzko liburua

Zumarragako jaietako ekitaldirik ezagunena eta garrantzitsuena, Antiguako elizan, Ama Birjinaren aurrean, urtero egiten den ezpatadantza izango da. Zumarragatarrok denok ezagutzen dugu, beti aditu izan dugu oso gauza zaharra dela, beharbada badugu lagun bat, edo familikoren bat dantzan ibilitakoa ere, baina ezpatadantzari buruz oso gauza gutxi jakin ohi ditugu.

Ezpatadantzari buruzko kontu horiek ezagutzera emateko, liburu bat atera du Zumarragako Udalak aurtengo jaietarako. Historian zehar zer aurkitzen dugun bakarrik ez, ezpatadantzaren esanahia, jakitsuek zer esan duten, dantzako pausoak, doinua, Antiguako eliza bera, hainbat gertakari, e.a. aztertu dira.

Helburu didaktiko bat ere badu liburuak, txistu soinuaren partiturak, dantzako zein pausori tokatzen zaizkion, marrazki eta guzti argitaratu bait dira.

Liburua euskaraz eta erderaz eman da argitara, eta dantza horren inguruko gora-beherak oso ondo azaltzen dituzten argazki ugariarekin. Aurkezpena gaur bertan izango da, uztailaren batean, arratsaldeko 6etan Udaletxean bertan.

Aukera polita beraz, gure herriko historia zati bat ezagutzeko, eta ez da opari txarra ere, kanpoan bizi zaizkigun familiko eta herritarrei opari bat egin nahi izanez gero.

Bukatzeko esan beharrean gaude egilea Antonio Prada izan bada ere, Luis Mari Arrieta, Jesus Mari Garralda, Migel Urteaga eta Juanjo Zabaletaren lanagatik izan ez balitz, ezinezkoa zitzaikeela egitasmo honi argirik ikustea.

### Zumarragatarrok denok ezagutzen dugu, beti aditu izan dugu oso gauza zaharra dela



# UDA HONETAN ...

## MOUNTAIN BIKE: Espainiako txapelketa bertan!

Mountain Bike zaletasuna, duela urte batzu sortu zen gure herrietan, eta oso denbora laburrean indar handia hartu du. Indar hau aprobetxatuz, Urola Kirol Elkarteko atletismo sailak, J.A. Merino buru zuelarik, Zumarraga herriko Lehen Mountain Bike proba antolatu zuen.



Lehen proba honek izandako arrakasta eta oihartzunak Gipuzkoako nahiz Euskadiko Txapelketa antolatzeko bide eman zuten. Aurten, berriz, Madrid eta Jaca hautagai izan badira ere, Zumarragari eskaini zaio Espainiako VI. Mountain Bike Txapelketa antolatzeko aukera, uztailak 24 eta 25ean ospatuko dena.

Txapelketak bi atal izango ditu: «Cross Country» eta «Jeitsiera». Eta mailak hauexek izango dira: junior, senior eta beteranoak, gizonezkoak nahiz emakumeak parte har dezaketelarik.

Bi egunetan zehar estatuko Mountain Bike txirindulari trebeenak (baita txirringa garestienak ere, jakina) ikusteko aukera izango dugu. «Jeitsiera» proba benetan ikuskizun zirraragarria suertatuko delakoan gaude. Ez ezazu aukera hau galdu, inolaz ere!

## Haize giro

Eskolumeentzat zenbait iharduera antolatu dira, kirola, eskulanak, jolasak, irteerak, etabar... oporraldia ondo baino hobeto pasa ahal izan dezaten.

Horrela ba, kirol zaletuek aukera ezinobea izango dute bai Aldiri bai Ispilla kiroldegietan. Kuota txiki batzuen truke, igeriketa, tenisa, mendiko bizikleta eta beste hainbat kirolatan jarduteko aukera eskeintzen zaie kiroldegietatik. Horrezaz gain, kultur ekintzak ere tartekatzen dira, guztia kirola bakarrik izan ez dadin.

Bigarren aukera bat Urretxuko Udaleko Euskera Batzordearen eskutik zuzentzen zaie 6 eta 11 urte bitarteko haurrei.

Hain zuzen ere, uztailaren 5etik 23ra bitartean, jolastu bitartean euskeraz mintzatzeko aukera paregabea dute gure umeei, beti ere begirale trebatuen ardurapean.

Animatu ba uztail bikain bat igarotzera, nahiz kirol nahiz aisialdiko ekintzetan parte hartuz.

Bi herriotako Udaletxeetan izango duzue honen berri zabalagoa.



## ZUMARRAGAKO FESTAK DIRELA ETA, ZER IRUDITZEN ZAIZUE HONAKO MENU HAU?

### Lehenengo platera: ESPINAKAZKO ALBONDIGAK ILARREKIN.

Osagaiak: kilo bat espinaka, kilo bat ilar, bi patata, tipula bat, 100 gr. bacon, oliba olio txorrotakada bat eta ogirin goilarakada bat.

Nola egin: espinakak garbitu eta limoi erdi eta gatz pittin batekin egosi. Ura kendu eta hozten utzi. Espinakekik albondigak egin eta gerorako gorde. Ilarrak egosi eta gorde. Buztinezko eltze batetan jarri biguntzen zati-zati eginda tipula, patata eta bacona eta ogirina erantsi. Eltze honetan ipini albondigak, ilarrak eta haragi salda. Hau dena hamar minutuz su bajutan utzi... ETA JATEKO PREST!!!!

### Bigarren platera: TXANGURROA LAPIKOAN EDO DONOSTIAR ERAN.

Osagaiak: lau txangurro, bi tipula, lau baratzuri, tomate saltsa, cognac edo brandy txurrutada bat, normalean txangurroaren haragia nahikoa izaten ez denez, beste edozein arrainen gehitzen zaio, gatza, pipermina, perejila xehe-xehe eginda eta ogi raiatua.

Nola egin: txangurro egosiak hustu eta plater batetara atera. Tipula eta baratzuria txikitu eta su bajutan gorritu. Gorritu ondoren, cognac edo brandya eta tomate saltsa gehitu. Bertara txangurro haragia bota, gazpiperretatu eta gerorako gorde. Beste baratzuri bat frejitu, olio kendu eta ogi raiatu eta perejila nahastu. Dena nahastu eta txangurro kontxak bete, lapikoan berotu eta... ON EGIN!!!!

### Postrea: FRUTA SOUFLEA.

Osagaiak: bizkotxo oinarri bat, helatu barra bat, fruitu ezberdinak, hamar arraultza, cognac edo ron bi kopa, 200 gr. azukre eta gurin pittin bat.

Nola egin: metalezko bandeja bat gurinez igurtzi, bizkotxoaren oinarria ezarri. Gaietan, fruituak eta helatua zatitan. Bizkotxoa egiteko muduan arraultza txuringoak eta gorringoak bereizi, 100na gramo azukre bota eta eragin eta eragin «punto nieve» lortu arte. Nahastu eta metalezko bandejan daukagunari erantsi. Hogeita hamar minutuz labean eduki. Cognac edo ronarekin busti mahairatzeaz bat eta... BAPO-BAPO GERATU!!!!

Sukaldaria: BALENTINA

## Zer nahiago duzu, jaiak atzeratu edota azterketak aurreratu?



AITZIBER ANTIA eta BEATRIZ IGOA

«Festak atzeratu, bestela ikasten egon beharko zenuke eta ez zenuke gozatuko. Alkatea Santa Isabela kotxez igotzen ikusi behar dugu. Azterketak atzeratuz gero, festa guztiak azterketetan pentsatzen igaroko genituzke»



SAGRARIO ALKORTA

«Examinak aurreratu. Jaiak atzeratuz, uda dator eta jendeak ba...»



MARI KARMEN MENDIA

"Examinak aurreratu. Festak atzeratzea oso zaila da. Errazagoa da examinak aurreratzea"



ATANASIA QUINDOS

«Examinak aurreratu. Gazte jendea libreago egon dadin»



TOMAS LEKUONA

"Examinak aurreratu"

## AMAIA GARZIANDIA eta GOIATZ AIZPURU

«Examinak aurreratu. Lehenago bukatzeko, zeren agobiatuta baikaude eta lehen bait lehen bukatu nahi dugu»



## EZPATADANTZA-IRRINTZI, BANAEZINEKO BIKOTEA

Santa Isabel jaietako egitarauan azaltzen den ekitaldirik garrantzitsuena Uztailaren 2an Antiguako elizan dantzatzeko da, dudarik gabe. Hauxe da seguruenik zumarragarrei geratzen zaigun antzinako ohitura bakarra, edo bai behintzat garrantzitsuena.



Duela 23 bat urte Irrintzi dantza taldeak hartu zuen Santa Isabel egunerako ezpatadantza prestatzearen ardura. Horren aurretik Jose Odriozolak zuen bere esku lan hori, gazteei dantza irakatsi eta egun

lagunek osatzen dute; haurrak, gazteak eta helduak. Urte osoan zehar lanean dihardute, eta Aste Santua pasa ondoren hasten dira jotake Santa Isabeleko ezpatadantzarako entsaiuak egiten. Hortik Uztailaren 2a arte

horretan dena listo asteen bi aldiz bilduko da taldea. egotea, alegia; Normalean oso gaztetan sartzen da baina iritsi zen momentu bat jendea dantza taldean, eta ez du dantzaririk ez inongo helburu zehatzik izaten, baina dantzaririk ez Irrintzi taldearen martxan ongi sartuta zuena eta arazoak dagoenak badu zer desiatu, Santa zituen taldea Isabel egunean Antiguako Amaren osatzeko. Irrintzi aurrean dantza egitea, alegia. Egun ordurako martxan gutxi lehenago arte, ordea, batek ez daki bera izango denentz hautatua. zegoenez, hortxe Aurtan seguruenik hamasei urte aurkitu zuen inguruko bi gazte izango dira irintenbidea. Harrezkero lehenengo aldiz kapitain, baina ia ezpatadantza azkeneko momentuan jakingo da ziur aurrera ateratzeko ez da jende faltarik izan, eta Irrintzi taldeak ere izan du ardura horretan nortzu izango diren. Era honetan aurrera egiteko guztien ilusioa bizirik dago, ez da jende faltarik izan, eta Irrintzi taldeak ere izan du ardura horretan aurrera egiteko motibazio sakona. Ezpatadantzak Irrintzi taldeari esker bizirik iraun badu, Irrintzik esker iraun duela esandaiteke. Irrintzi taldea 60 bat

Santa Isabel bezperan Zumarraga-Urretxuko gazte gehienak parrandan ibiliko dira, baina ezpatadantzaren kapitain izango diren lau lagunak nahiko goiz joango dira ohera hurrengo goizean frexko-frexko eta lasai egoteko. Ondo asko lo eginda ere seguruenik urduritasuna azalduko da nonbait, eta ez da harritzekoa; Antiguako eliza jendez gainezka egongo da eta inork ez du hanka sartu nahi. Egun berezi honetako betebeharrak ongi eginez gero, berriz, denak gustora eta pozik egongo dira erromeri eguna jai giroan pasatzeko. Hala bedi aurtan ere!

## ZUMARRAGAKO EZPATADANTZAREN JATORRIA

Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan ere ez da Zumarragako ezpatadantza bezalakorik ezagutzen. Garai batean seguruenik izango zen, baina desagertuz joan ziren leku guztietan eta gaur egun hemengoak besterik ez da geratzen. Antzinatek gorde ahal izan dugun dantza honen berezitasun nagusia Ama Birjinari, eliz barruan eta belauniko dantzatzean datza.

**XIV. mendean Tolosan izan zen tolosar eta naparren arteko Beotibarko Batalla**

Hau alde batera utzirik Gipuzkoako bereizgarri diren pautoak eta moduak garbi garbi jarraitzen ditu.

Zumarragako ezpatadantzaren lau kapitain doaz eta zortzi, hamar edo hamabi lagun, ez bait dago zerbait zehatzik, sokan. Kapitain bat ezpataz sokari lotuta doa, eta beste hirurek ezpata motzak daramatzate. Elizara sartu eta sokara lotuta doan kapitainak puntua egingo du, eta gero beste hirurak sartuko dira, banan bana Ama Birjinaren aurrean dantza eginez, baina belauniko hasita. Azkenean lau kapitainek batera egingo dute puntua.

Antzinatek datozen gauza guztiekin gertatzen den bezala Santa Isabel eguneko ezpatadantzaren jatorri eta esanahiari buruz hipotesiak besterik ez daude. Indar handiena duenak dio XIV. mendean Tolosan izan zen tolosar eta naparren arteko Beotibarko Batallan bertakoek lurrak hartzea zetozen naparrak bota zituztenean, gudari batzu Antiguako elizara etorri zirela Ama Birjinari dantza egitera, garaipenagatik eskerrak emateko. Beste bertsio batek dio borroka egitera joan aurretik etorri zirela, Ama Birjinari laguntza eske.


## OTAMOTZ

### ZER GERA GU, NOR GERA GU?

Urretxu-Zumarragako euskaltzaleak gara gu.

Eskuetan duzun orri honek 16-20 orrialdeko aldizkaria izan nahi du laister, eta horretan gabiltza, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkartearen barruan, helburu hori gauzatzeko lanean. Zintzo-Mintzo joan den urte bukaera inguruan sortu zen. Bere helburu nagusia, Zumarraga-Urretxuko euskaltzaleak nolabait bildu eta gure hizkuntzaren erabilera bultzatu. Helburu hau lortzeko beharrezko diren bitartekoen artean funtsezkotzat jo zen euskera hutsezko herri aldizkari bat ateratzea, eta OTAMOTZ ale hau lehenengo pausoa baino ez da. Duela hiruzpalau hilabete hasi gara serio lanean aldizkaria ateratzeko eta argi eta garbi ikusi dugu langile profesionalak, ordenagailuak, inprimatzeko makinak eta beste gauza asko behar direla, astero astero herri aldizkari bat ateratzeko. Guzti horiek lortzen ditugun bitartean, ordea, hauxe kaleratu nahi izan dugu, gure asmoak zeintzu diren behintzat jakin dezazuen. OTAMOTZ aldizkariak bi herrietan gertatu direnak kontatu, gertatzekoak direnak iragarri, bertako

jendea, agian ez ezaz gure askorentzat, baina beti ere interesgarria, aurkeztu eta ezaz gure, herritarren eritzia kaleratu... eta beste gauza askotarako lekua izango du. Horretan saiatzen ari gara. Gure asmoa datorren urte hasieratik astero-astero OTAMOTZ kaleratzea da, eta orri honen bitartez harpidedun izan zaitez gonbidapena luzatzen dizugu. Horretarako egin behar duzun gauza bakarra honen alboanduzun txartela bete eta Urretxuko Kultur Etxera nahiz Zumarragako Euskara Zerbitzura bidali edo eraman, eta etxean jasoko duzu astero doan OTAMOTZ herri aldizkaria. Bestalde, garrantzi handia du guretzat




jarraian doan kupoia zuek betetzeak, horrela jakingo gure gutxi gorabehera aurrerantzean OTAMOTZ astekariak zenbat aleko tirada izango lukeen. Bitartean Urretxuko jaietan eta Santa Lutz jaietan honelako orri bat irakurtzeko aukera izango duzu. Horiexek ditugu hurrengo zitak, beraz ez hutsik egin.

OTAMOTZ aldizkaria doan jaso nahi nuke etxean:

Izena: \_\_\_\_\_  
Abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_

Moztu eta bidali kupoi hau:  
Zumarraga: Udaletxeko Euskara Zerbitzua  
Urretxu: Kultur Etxea



gipuzkoa  
donostia kutxa